

INBADITUAK!

Xabier Rubio

Ez dira beste planeta batetik etorri, baina bai beste mundu batetik, beste ekosistema batetik, eta hemen arrotzak dira. Ez dira hemengoak, baina gure artean geratu dira. Nola etorri diren batek daki. Seguruenik geuk sartu ditugu, nahita edo nahigabe, gehiengotan kaltegarria izan zitekeen zerbait zela ohartu gabe. Baina maiz gure ekintzek ondorioak dituzte eta gainera beti ez dira erraz zuzentzen. Landareez eta animaliez ari naiz. Kanpotik ekarritako espezie horiek lehenbizi naturalizatu egiten dira, ugaltu eta zabaltu egiten dira, eta hor hasten dira arazoak.

Kanpoko espezieak edo espezie arrotzak: bertakoak ez direnak, kanpoko herrialde batetik ekarri ditugunak. Askotan modu naturalean nekez iritsiko ziren animaliak edo landareak dira, kasu batzuetan guztiz ezinezkoa litzateke. Beti ez dira geratzen gure artean, eta pasata denbora bat, desagertzen dira, besterik gabe. Edo behar gaituzte mantentzeko.

Kanpoko espezie naturalizatuak: urrutitik etorritako batzuek toki egokia topatzen dute eta hemen bizitzeko modua aurkitzen dute. Naturalizatu egiten dira eta mantentzen dira, ugaltzeko gauza dira eta zabaltu daitezke ala ez. Gutxi batzuek ez dute arazorik sortzen, edo ez ditugu ikusten. Beste batzuek aldiz, oso larriak.

Kanpoko espezie inbaditzaileak: horiek geratzeko etorri dira eta kosta ahala kosta egingo dute, bertakoak kanporatuz, ekosistemak eraldatuz.

Ba al zenekien kanpoko espezie inbaditzaileak direla Biodibertsitatearen galeraren mundu mailako 2. arrazoa? Galerak gure ondare naturalean zenbatezinak dira, bakkarririk ekonomikoki eragiten digunean konturatzen gara. Haiek eragindako kalteak kasu batzuetan handiak dira, baina are handiagoak dira inbaditzaileak kontrolatzeko gastatu beharrekoak. Eta guztiz ezabatzea gehiengotan ezinezkoa zaigu.

Gertuko arazoa da. Ez da urrutira joan behar. Hemen ehunka kanpoko landare eta animalia ditugu. Maiz maskota gisa saldutakoak, lorategiak apaintzeko jarritakoak edota egurgintzan erabiliak (sasiakazia, *Robinia pseudoacacia*, kasu).

Landareen kasuan Gipuzkoako Foru Aldundia eskualdeko udalerriekin elkarlanean lan garrantzitsua egiten ari da kanpoko landare inbaditzaile batzuk (ikus top 4) kentzeko. Gero eta diru gehiago gastatzen ari gara horiek kontrolatzen. Kontzientziaz ez bagara eta herritar guztion laguntzarik gabe espezie askorekin ez da posible izango. Hortaz, Errenteriako Udalak sentsibilizazio kanpaina abian jarri du, besteak beste foiletok argitaratuz. Handitzen doan arazo honen inguruan adibide batzuk ekarri ditugu hona:

Landareen TOP 4:

- *Fallopia japonica*. Banbu japoniarra. Asiakoa da. Ibai ertzetan zabaldurik dago eremu handiak okupatuz. Gero eta arruntagoa da lorategi eta errepide berrien inguruan. Hura zabaltzen den tokian askotan ez dago beste landararik.
- *Buddleja davidii*. Tximeleten zuhaixka. Lorategietan sartu zen eta egun oso zabalduta dago. Ez du zoru sakonik behar eta edozein arrakaletan hazia ernatzeko gauza da. Kolonizatzaile bikaina da eta eraldatutako zoruetan gustura zabaltzen da.
- *Cortaderia selloana*. Panpako belarra. Hegoamerikatik lorategietara ekarria eta ikaragarri hedaturik. Oso ezagunak dira garatzen dituen "plumero" delakoak. Mugituriko lurretan, eraldaturiko zoruetan eta, erruz agertzen da. Bereziki kaltegarria suertatu daiteke padura altuetan. Kontrolpean mantentzeko, denon kolaborazioa garrantzitsua da.
- *Phytolacca americana*. Iparramerikakoa. Mendi aldera zabalduta da eremu puntualetan, baina agertzen den puntuetan azkar hedatzen da. Fruituak koloranteak egiteko erabili ziren. Landare osoa pozoitsua da. Txoriek haziak tokitara eramaten dituzte. Lur azpian sekulako sustrai potoloa garatzen du. Tratatzeko zaila. Ulia-Jaizkibel eta Aiako Harria Parke Naturelean eremu puntual batzuetan oso zabaldurik dago.

Animalien TOP 4

- *Myocastor coypus*. Koipua. Hegoamerikatik ekarria larruarengatik. Hemen ditugunak Frantziatik sartu ziren han etxalde batetik ihes egin eta gero. Arratoi erraldoia dirudi. Herritar batzuek jaten ematen diete, gure harridurarako. Baratza dutenek, ordea, ez dituzte hainbeste maite. Ibai zein oro har hezeguneetako landaredia asko kaltetzen du. Gipuzkoako Foru Aldundia, eskualdeko udalerriekin batera, koipua ingurune naturaltik kentzeko ahaleginetan dabil.
- *Trachemys* spp. Floridako dortokak. Ipar Amerikatik espezie ezberdinak sartu dira. Txikiak hasieran, baina gero... Jendeak asmo onez naturan askatu egiten ditu. Hor ikus daitezke Oiartzun ibaian eguzkia hartzen. Hain sinpatikoak egiten zaizkigun horiek gaixotasunak kutsatzen dituzte, habitata eraldatu dezakete eta bertako anfibio, arrain eta ornogabeei eragiten diete. Ez erosi, baina inoiz ez askatu. Gipuzkoako Foru Aldundiak dortokak jasotzeko kanpaina bultzatu zuen.
- *Carassius auratus*. Arrain gorria edo karpina. Asiatik dator. Nork ez du umetan bat izan. Milaka saltzen dira eta ferietan ere oparitu egiten dituzte. Arazoa dator ibaieetan, eta batez ere aintzira eta putzuetan askatzen ditugunean. Oso azkar ugaltzen dira eta medioaren baldintzak eraldatzen dituzte. Kalte handia eragiten diete landareei, intsektuei, anfibioei eta beste arrainei. Hezeguneak oso aberatsak dira eta oso erraz kaltetu ditzakegu, beraz, kontuz!
- *Vespa velutina*. Liztor beltza. Txinan du jatorria eta itsasontziz iritsi zen antza Europara, Frantziatik azkar zabalduz eta Euskal Herrira iritsiz. Bere dietaren %85 inguru erleak izan daitezke. Beraz, erlauntzetan sortutako kalteak handiak dira. Protokolo zorrotz bat abian jarri da eta liztorra kontrolatzeko ahaleginetan administrazio ezberdinak elkarlanean ari dira. Errenteriako Udalak informazio kanpaina jarri du martxan.

